BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5619

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 16koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, honako hau xedatzen da: batetik, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 206/2013-M prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi errekurtsoari dagokion PCA-260/2013-VI administrazio-espedientea; eta bestetik, balizko interesdunak epatzea epaitegi horretan ager daitezen.

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak 206/2013-M prozedura laburtuan izapidetutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion PCA-260/2013-VI espedientea bidal dakiola eskatu du. Errekurtso hori xedapen honen aurka jarri da: Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2013ko uztailaren 11ko Ebazpena, Giza Baliabideetako zuzendariak 2012ko urriaren 23an emandako ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa gaitzesten duena. Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen hark lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan behin-behinean betetzeko prozedura arautzen zuen, hain zuzen ere Ertzaintzako Unitateetako goragoko mailako lanpostuak betetzeko edo espezialitate ezberdineko lanpostuak betetzeko (intra-unitate eginkizunak).

Hori horrela izanik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Eskatutako administrazio-espedientea Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegira bidaltzea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegian ager daitezen 206/2013-M prozedura laburtuan eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 16a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.